

# 4 Nola txertatu genero-ikuspegia hizkuntza-politikan? Lanerako marko baten proposamena<sup>1</sup>

Goizargi Oruesagasti,  
Joana Arakistain eta Aizpea Otaegi

*Elhuyar aholkularitza*  
aholkularitza@elhuyar.com

Sarrera-data: 2014-10-31 / Onartze-data: 2014-11-28

**Laburpena.** 2014an, Gasteizko Udalak laguntza eskatu zigun Euskara Zerbitzuaren programetan genero-ikuspegia txertatzeko, edo bestela esanda, Euskara Zerbitzuaren programei betaurreko moreekin begiratzeko. Baina hizkuntzaren eremuan genero-ikuspegiarekin jarduteko, nahitaez jakin edo/eta eztabaidatu behar dugu zeri erreparatuko diogun, zer irakurketa egin dezakegun eta, normalizazioa eta berdintasuna uztartuta, erronkak zein diren. Lan honetan errealitate soziolinguistikoari beste ikuspegi batetik begiratu diogu, eta esplorazio horretatik, lanerako hainbat hipotesi eta estrategia proposatu ditugu. • **Hitz-gakoak:** genero-ikuspegia, hizkuntza-politika, euskara-zerbitzuak, berdintasuna, errealitate soziolinguistikoa, hipotesiak, estrategiak.

**Abstract.** In 2014 Vitoria-Gasteiz City Council requested our help in incorporating the gender perspective into the programmes of the Basque Language Service, or to put it another way, to look at the Basque Language Service programmes through purple-tinted spectacles. But to work with the gender perspective in the language area, we have out of necessity to know and/or discuss what we want to focus on, what interpretation we can make and what the challenges are when bringing normalisation and equality together. In this paper we have looked at the sociolinguistic reality from a different perspective, and through that exploration, we have proposed a number of working hypotheses and strategies. • **Key words:** gender perspective, language policy, Basque language services, equality, sociolinguistic reality, hypotheses, strategies.

## SARRERA

**I** Azken urteetan nabarmena izan da soziolinguistika beste jakintza-arlo batzuetako ekarpenekin aberasteko ahalegina, eta euskararen garapenerako gako interesgarriak aurkitu dira bide horretan. Hizkuntza-plan-gintzak eta hizkuntza-politikak diseinatzerakoan, ordea, ez da landu genero-ikuspegiari buruzko planteamendu sistematizaturik. Uste dugu gai sakontzeak, soziolinguistikaren inguruko ezagutza eta ikuspegia aberastez gain, euskararen sustapenean eragiteko ikuspegi eta bide berriak zabaltzen dituela.

Euskararen sustapena egungo gure jendartearen erronken artean dago. Horren erakusle dira euskara biziberritzeko lanean ari diren elkarte eta erakundeak, landu diren plangintzak eta arauak, martxan jarri diren ekimenak. Berdintasunarena ere erronka soziala da. Bidezkoagoa eta hobea izango den jendartea helburu baldin badugu, emakume eta gizonen berdintasuna gure gaur egungo erronka garrantzitsuen artean kokatu beharra dugu, eta hori adierazten digute berdintasunaren inguruko ekimen sozialak eta gure erakundeek sustatutako lege eta politikek. Bi erronka sozial garrantzitsuen aurrean gaude, beraz. Gai transbertsalak dira, gainera; gure politika guztietan presente egoteko eta eragiteko xedea dute biek ere.

Testuinguru horretan kokatu beharra dago, adibidez, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea. Legearen printzipio orokorretan, zera adierazten da genero-ikuspegiaren integrazioaren gainean:

“Euskal herri-agintek genero-ikuspegia txertatu behar dute beren politika eta ekintza guztietan, halako moduz non horietan guztietan ezberdintasunak ezabatzeke eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra ezarriko duten. Lege honen ondorioetarako, honako hau da genero-ikuspegiaren integrazioa: emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharizan ezberdinak modu sistematikoan kontsideratzea, eta, horretarako, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-fase guztietan, ezberdintasunak ezabatzeke eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduketa zehatzak txertatzea”.

Printzipio horrek euskal herri-aginteen politika eta ekintzei erreferentzia egiten dienean, euskararen eremuan egiten diren politika eta ekintzak ere aintzat hartzen ditu. Beharrezkoa ikusten dugu, beraz, hizkuntza-politikaren eremuan genero-ikuspegia txertatzen dugun gogoeta egitea, baita (ahal dela) lanerako oinarri batzuk jartzea ere:

---

***Euskararen sustapena egungo gure jendartearen erronken artean dago. Horren erakusle dira euskara biziberritzeko lanean ari diren elkarte eta erakundeak, landu diren plangintzak eta arauak, martxan jarri diren ekimenak. Berdintasunarena ere erronka soziala da. Bidezkoagoa eta hobea izango den jendartea helburu baldin badugu, emakume eta gizonen berdintasuna gure gaur egungo erronka garrantzitsuen artean kokatu beharra dugu.***

**Geure buruari  
galdetu behar  
diogu errealitate  
soziolinguistikoa  
genero-  
ikuspegitik  
zenbateraino  
aztertzen dugun  
eta horrela  
egiteak zer  
aztertu edo zeri  
erreparatu  
beharra  
dakarren. Zer  
datu behar  
ditugu? Zer  
aldagai/eduki  
berri txertatu  
behar ditugu  
analisiari?**

• Batetik, geure buruari galdetu behar diogu errealitate soziolinguistikoa genero-ikuspegitik zenbateraino aztertzen dugun eta horrela egiteak zer aztertu edo zeri erreparatu beharra dakarren. Zer datu behar ditugu? Zer aldagai/eduki berri txertatu behar ditugu analisisian?

Genero-ikuspegia txertatzeko ezinbesteko urratsa da diagnostikoa bera genero-ikuspegiarekin egitea. Horretarako, garrantzitsua da, besteak beste, jasotzen diren datuak sexuaren arabera bereizita jasotzea; premia, behar, interes eta abarretan emakume zein gizonek adierazten dutenari berariaz erreparatzea; datuen eta informazioaren sexuaren arabera azterketa bereziak egitea; azkenik, geure buruari galdetzea errealitatea bere osotasunean jasotzeko beharrezkoa den informazio guztia eta aldagai guztiak kontuan hartzen ari ote garen.

• Bestetik, errealitate soziolinguistikoa aztertzeko unean, geure buruari galdetu behar diogu genero-ikuspegia txertatzeak zer ekarpen egiten digun edota zer ondorioz eramanen gaituen. Errealitate soziolinguistikoa hobeto ezagutzeko eta ulertzeko bidea izateaz gainera, zer hipotesi berriekin lan egiteko aukera zabaltzen digu errealitate soziolinguistikoa genero-ikuspegitik berrirakurtzeak eta ikuspegi hori txertatzeak?

• Lanerako hipotesi berriak baldin baditugu, gure politikak, plan-gintzak eta estrategiak hipotesi berri horien gainean eraiki beharko ditugu; hipotesi berriek egokitzapena edo moldaketa ekarriko dute.

Dokumentu honetan jasotakoak Gasteizko Udalak eskatuta landu dugun "Vitoria-Gasteizko Udaleko Euskara Zerbitzuaren programetan genero-ikuspegia txertatzeko beharraren eta aukeraren azterketa" lanean oinarrituta daude. Dokumentu honetan jasotakoek, beraz, Gasteizko errealitatea dute oinarri nagusi, eta ezin dira beste eremu geografiko batzuetara bere horretan aplikatu. Edonola ere, eztabaidarako eta gogoetarako abiapuntua izan nahi dute. "Lanerako marko baten proposamena" dira.

Bestalde, dokumentu honetan ez dago propio edo berariaz jasotako daturik. Eskura ditugunak arakutzen eta baliatzen ahalegindu gara, eta horien gainean aurretik egin diren irakurketak edo egitasmo honen baitan egin direnak biltzeko eta ordenatzeko ahaleginaren emaitza da dokumentu honek jasotzen duena.

Azkenik, euskararen sustapenak bizitzako alor guztiak hartzen dituela jabetuta, esan nahi dugu eremu edo gai jakin batzuetan zentratu dugula begirada, eta, zehazki, honako alor hauei erreparatu diegula:

- **Euskararen ezagutzarekin** lotuta, helduen euskalduntzeari, irakaskuntzari eta familia bidezko transmisioari erreparatu diegu.
- **Euskararen erabilerarekin** lotuta, aisialdia, kirola eta gazteak aztertu ditugu.
- **Motibazioaren** alorrari ere tarte eskaini diogu, eta genero-ikuspegitik nabarmentzekoenak iruditu zaizkigun aldagaiak landu ditugu. Zehazki, euskararen balioekin, lidergoarekin eta ahalduntzarekin lotutako elementuak jaso ditugu.

## ERREALITATE SOZIOLINGUISTIKOAREN BERRIRAKURKETA

### I

#### 1. Euskararen ezagutza

##### A) Emakumeak, ikasten lehenak

Euskararen ezagutzaren datuetan, sexuaren arabera desorekarik ez da ageri, ez EAEn, ezta Araban ere. Hori horrela izanik ere, euskalduntzea bereziki lotzen da emakumeekin. Datuek hori diote, emakumeak direla euskara ikasteko edo hobetzeko ahaleginean nabarmenago inplikaturik daudenak.

Datu zehatzetara joanez, Arabako euskaltegietan, ikasleen ia %70 emakumeak dira. Gasteizko Mintzalaguna programan ere antzeko ehunekoa dugu, eta are handiagoa Guraso Taldeen programaren barruan.

Datu horiek justifikatzeko arrazoiak ere badirela dirudi. Bai artikuluetan, bai elkarrizketetan jasotako informazioaren arabera, hiru alderdi azpimarra ditzakegu emakumeek euskara ikasteko edo hobetzeko izan dezaketenen interes nabarmen handiago horren atzean:

- Batetik, gizon eta emakumeen arteko segregazio horizontala gertatzen da lan-munduan; alegia, emakumeak eta gizonak kontzentratzen diren lan-eremu nagusien ezaugarriak desberdinak dira. Emakumeak, batez ere, zerbitzuen eremuan kokatzen dira eta hor euskararen eskakizuna handiago da, oro har. Lan-munduan aukera hobeak izateko, emakumeek euskararen behar handiagoa senti dezaketela pentsa dezakegu, beraz.

Perspektiba eta errealitate profesionalei dagokienez, Kike Amorrizek dio emakumezkoak aritu ohi diren lanbideetan euskararen eskaera eta erabilpena altuagoa dela. Adibide modura, honako hauek aipatzen ditu: haurtzain partikularrak, harreragileak, administrariak, irakasleak, erizainak... eta, oro har, zaintzarekin eta jendaurreko lanekin lotutakoak.

**Gizon eta emakumeen arteko segregazio horizontala gertatzen da lan-munduan; alegia, emakumeak eta gizonak kontzentratzen diren lan-eremu nagusien ezaugarriak desberdinak dira. Emakumeak, batez ere, zerbitzuen eremuan kokatzen dira eta hor euskararen eskakizuna handiago da**

---

**Gazteek  
lagunekin  
erakusten duten  
euskararekiko  
jokaera eta  
etxean amarekin  
erakusten dutena  
oso antzekoak  
dira. Amak,  
beraz, ondorengo  
belaunaldien  
ezagutza- nahiz  
erabilera-mailan  
eragiten du.**

Ildo beretik, Jone Miren Hernandezek dio emakumeak aritu ohi diren enplegu edo lanetan euskara gehiago hitz egiten dela, juxtu feminizatuen dauden lan-eremuetan “euskararen inguruko eskakizunak finkatuago eta hedatuago daudelako”.

- Bestetik, emakumezkoek eta gizezkoek zaintzan, oro har (baita seme-alabenean ere) jokatzeko duten rola eta egiten duten denbora-inbertsioa desberdina da. Seme-alaben heziketan euskara presentetago egoteko nahia edo umeei eskolako lanetan etxean laguntzeko arduraren nagusiki emakumeek sentitzen dute. Motibazio horri lotuta, emakumeek gizek baino behar handiagoa senti dezakete euskara ikasteko edo hobetzeko.

- Azkenik, emakumeek gehiago hartzen dute parte trebakuntzarekin, norberaren gaitasuna garatzearekin edo kulturarekin lotutako ekimenetan, eta joera hori Europan ere zehar atzeman daiteke. Oro har, emakumeek adierazten duten joera hori hizkuntzak ikasteko garaian ere adierazten da. Begoña Muruagak emakumezkoek kulturarekiko erakusten duten jakin-minarekin lotzen du, hain zuzen ere, euskaltegi-tako emakumezkoen presentzia nagusia.

Atal honen hasieran aipatu ditugun ezagutza-datuak berriz helduta, gogoeta egin beharko genuke zergatik ez dagoen alderik emakume eta gizonen ezagutza-datuetan, emakumeek euren ezagutza-maila hobetzeko ahalegina egin arren. Zer emaitza edo inpaktu du benetan emakumeek egiten duten ahalegin horrek? Zergatik ez dira emaitza hobek lortzen? Zein izan daitezke gakoak ezagutza-datuetan emaitza hobek lortzeko?

### *B) Amak transmisioan giltzarri*

Familia bidezko transmisioaren gaia asko aztertu da, batez ere, bikote mistoen kasuan (bikotekide bat euskalduna eta bestea ez denean). Eta kasu guztietan ikusi da amaren hizkuntza-identitateak aitarenak baino pisu handiagoa duela, hizkuntza seme-alabei transmititzeko orduan.

Zentzu horretan, José Francisco Zinkunegik 1995ean JAKIN aldizkarian argitaraturiko “Euskararen transmisioa EAEn” artikuluan baieztatzen zuenez, “Hizkuntzaren transmisioan ez da hartzailearen sexuaren arabera joera adierazgarririk antzematen, hau da, hartzailea neska ala mutila izan, berdin-berdin jasotzen dute hizkuntza. Ordea, transmititzailearen sexuaren arabera emaitzak desberdinak dira, eta, orokorrean, transmisioa hobeto bideratzen da euskalduna ama denean aita denean baino”.

V. Inkesta Soziolinguistikoko emaitzen arabera, jatorrizko elebidunak (hau da, etxean euskara eta erdara batera jaso dituztenak) gero eta

gehiago dira. Bikote mistoen eta bikote euskaldun berrien seme-alabak dira. Horrela, 16-24 urte arteko gazte elebidunen %18,9 jatorrizko elebidun da dagoeneko. Lorea Agirrek dio umeak elebidunak direnean ere, elebitasun horretan amaren hizkuntzarekiko direla elebidunak —euskal elebidunak edo erdal elebidunak—.

Jone Miren Hernandezek ere ondorio bera argitaratzen du “Euskara dela eta... Neskek zer diote?” artikuluan; alegia, aitak baino askoz ere gehiago eragiten duela amak umeen hizkuntza-jokaeran. Horrez gain, zera gaineratzen du: ama euskaldunek leialtasun handia diotela euskarari, bai, bederen, beste euskal hiztunek adinakoa; eta gazteek lagunekin erakusten duten euskararekiko jokaera eta etxean amarekin erakusten dutena oso antzekoak direla. Amak, beraz, ondorengo belaunaldien ezagutza- nahiz erabilera-mailan eragiten du.

Hizkuntzaren transmisioan amak duen pisuaren arrazoia da zaintzaile nagusia ama izan ohi dela. Elkarrizketan, Jone Miren Hernandezek honela azaltzen du: “Transmisioa kontzeptu bezala neutroa da, baina transmisioa familiarekin eta, azken batean, zaintzarekin lotuta dago, eta egun oraindik hezkuntzari lotutako ardura zehatz batzuk emakumeak hartzen ditu, umeekin denbora gehien pasatzen dutenak direlako. Berez, zaintzailearen hizkuntza litzateke; gertatzen dena da, ordea, zaintzailea ia beti ama dela. Baina ez da emakume izategatik desberdin transmititzen dugulako”.

Kike Amonarrizek ere hori bera adierazten du lehen aipaturiko artikuluan: “Hizkuntza-transmisioan eta, oro har, haurren heziketan gizonaek gaur egun presentzia handiagoa baldin badute ere, funtzio hau, batez ere, emakumeek garatzen dute (amak izan ala hezitzaile edo zaintzaileak izan), eta, beraz, beren inplikazio linguistikoa ere handiagoa da”.

Amen hizkuntza-leialtasunaz hitz egin izan da, lehenago ere, garaian garaiko eskakizunetara edo testuingurura egokitzeko gaitasuna azpimarratuz. Kike Amonarrizek, esaterako, 1995ean BAT aldizkarian argitaratutako Euskararen erabilpenaren feminizazioa artikuluan aipatzen zuenez, “Gaztelania transmititzea inportantea zenean, emakumeek gaztelaniarekiko leialtasuna erakusten zuten. Euskarak prestigioa hartu ahala, euskara transmititzea inportantea denean, emakumeek euskararekiko leialtasuna erakusten dute”.

Iñaki Martinez de Lunak ere, “Euskararen kale-erabilera Araban: 1989-2006” artikuluan, zera dio, bide beretik: “Ez dirudi astakeria ondoko hipotesia luzatzea —tentu handiz bada ere—: kulturalki emakumezkoek garai- eta hizkuntza-exijentzia berriei egokitzeko gaitasun handiagoa erakusten dute eta gizonaek, aldiz, ohitura eta usadioei eusteko joera sendoagoa”.

---

***Ikertzaile batzuek, ordea, amahizkuntzaren kontzeptuaren esanahia amaren irudiari tradizionalki atxikitzen zaizkion betebeharrak eta rolekin lotzen dute. Amaren eta haurraren arteko harremanean erabiltzen den hizkuntza, batetik, haurrak ezagutuko duen lehenengoa izango da, eta, bestetik, garrantzitsuena bilakatuko da gerora, afektibitatearekin oso lotuta dagoelako.***

Lorea Agirrek egokitzapenaren estrategiaren atzean egon daitezkeen arrazoiei heltzen die honela: “Kontuan izan behar da euskaldun moduan dakarkizun edo ikusi duzun historia soziolinguistiko hori guztia... eta logikoa da onena nahi izatea seme-alabentzat eta onenaren definizio horretan zein hizkuntza sartzen den kontuan hartzea. Baina kontrakoa ere egon da”. Eta emakumeek, batez ere, mundu tradizionalen jokatu duten rola azpimarratzen du: “Euskararen transmisioan mundu tradizionalen fundamentalak izan da emakumea, nahiz eta gero plazara gizonak irten diren, hizketara, bertsoetara... Nekazaritza-lurretatik hirietara emigratu duten emakumeek beharbada galdu egin dute pisu hori, edo birkokatu egin behar izan dute, funtzioak galdu dituelako [euskarak] eta funtzioekin batera bere botere-guneak, txikiak izanagatik”.

Transmisioaren eremuan, ama-hizkuntza terminoa bera auzitan jartzen da: ama-hizkuntzaz baino, lehen hizkuntzaz hitz egin beharko genuke? Errealitateari erreparatzen badiogu, ezin uka lehen hizkuntza eta amaren hizkuntza gehienetan bat etortzen direla. Ikertzaile batzuek, ordea, ama-hizkuntzaren kontzeptuaren esanahia amaren irudiari tradizionalki atxikitzen zaizkion betebeharrak eta roletan lotzen dute. Amaren eta haurren arteko harremanean erabiltzen den hizkuntza, batetik, haurrak ezagutuko duen lehenengo izango da, eta, bestetik, garrantzitsuena bilakatuko da gerora, afektibitatearekin oso lotuta dagoelako. Horrenbestez, gailendu egingo zaio beste pertsonen haur horrekiko harremanetan erabil dezaketen beste edozein hizkuntzari.

Horren aurrean, Begoña Muruagak garbi du ama-hizkuntza kontzeptua berraztertzea beharra dugula, kontzeptuak jendarte gero eta aldatkorrago honen errealitatea islatu behar duelako.

### *C) Gurasoen haratago, zaintzaren feminizazioa*

José Francisco Zinkunegik 1995ean JAKIN aldizkarian argitaraturiko “Euskararen transmisioa EAEn” artikuluan zioen egungo jendartearen bilakaeraren ondorioz, aldatetarako gertatu direla emakumea lan-munduan sartu den heinean, hark familiar izan duen ohiko lekua beste pertsona (zaindaria, aitona-amonak...) edo erakunderen batek (haur-eskola, haurzaindegia...) bete ohi duelako, eta horien hizkuntza-jarrerak haurraren duen eragina handia dela.

Lorea Agirrek familiaren pisuaren beherakada berresten badu ere, oraindik ere familia-transmisioak duen garrantzia azpimarratzen du: “Familiak hizkuntzan duen eraginak seguru aski, kasu askotan, behera egin du. Eskolaren esku utzi dira gauza asko, baina eskolak mugak ditu. Eta hor ez badu familiak edo gizarteak laguntzen, alferrikako lana da”.

“Gazteak eta Euskara Gasteizen” azterlanean ere familiak umeen errealtate edo garapen linguistikoan duen eragina azpimarratzen da. Gazteen ustez, gaitasun-maila altua lortzeko biderik egokiena hizkuntzaren transmisio naturala (lehen hizkuntza gisa familian transmititzea) da; besteak beste, hizkuntzaren ezagutzarekin batera, hura erabiltzeko motibazioa ere transmititzen delako.

Egitura bakoitzaren pisuan eta funtzioetan aldaketak gertatu badira ere, zalantzarik gabe, zaintza, lehen urteetako heziketa, oraindik ere, gaur egun, rol desberdinak jokatzen dituzten era guztietako emakumeen gain dago erabat, izan ama, andereño, amona, zaintzaile pribatu, haurtzaindegiko zaintzaile, etab.. Era guztietako zaintzaile/hezitzaile horien hizkuntza-gaitasunak, -erabilerak eta -motibazioak, beraz, erabateko eragina du transmisioan.

## 2. Euskararen erabilera

### *A) Euskararen erabilera feminizazioa gertatzen ari da?*

Hizkuntzen kale-erabileraren IV. Neurketak (2011) jasotakoaren arabera, kalean behaturiko solaskideen sexuari eta adinari erreparatuta, emakumezkoek gehiago egiten dute euskaraz gizonetzkoek baino adin-talde guztietan, adinekoetan izan ezik. Portaera hori ia lurralde guztietan (Ipar Euskal Herrian eta Nafarroan izan ezik) eta Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan gertatzen da: emakumezkoek gizonetzkoek baino zertxobait gehiago hitz egiten dute euskaraz.

Kike Amonarrizek “Euskararen erabilpenaren feminizazioa” artikuluan dio garbi dagoela azken urte hauetan aldatu egin direla sexuen joerak hizkuntza-erabilerarekiko, eta garai batean neskek nekazaritza-eremuetan erdararekiko joera nabarmenagoa baldin bazuten ere, gaur egun, eta batez ere neska gazteek, euskararekiko atxikimendu-maila altuagoa azaltzen dutela.

Lankideekiko harremanetan ere, badirudi emakumeek gizonetzkoek baino gehiago egiten dutela. Euskal Herriko Soziolinguistikako Inkestaren arabera (2011), lankideekiko harremanetan baino ez da emakumeen euskararen erabilera gizonetzkoena baino handiagoa. Oro har, galdetzen diren harremanetan, gizonetzkoek aitortzen dute emakumezkoek baino erabilera zertxobait altuagoa.

Ezagutzaren atalean aipatu bezala, emakumeek enplegu-egituran betetzen duten tokiarekin lotuta egon daiteke hori. Beraiek lan egiten duten eremuetan (zerbitzuetan, administrazioan, zaintzan...) arautuago dago hizkuntzaren alderdia edo eskakizuna altuagoa da. Eskakizunari erantzuteko garaian emakumeen autoexijentzia-maila altuagoa ere izan daitekeela aipatzen da.

---

**Hizkuntzen kale-erabileraren IV. Neurketak (2011) jasotakoaren arabera, kalean behaturiko solaskideen sexuari eta adinari erreparatuta, emakumezkoek gehiago egiten dute euskaraz gizonetzkoek baino adin-talde guztietan, adinekoetan izan ezik. Portaera hori ia lurralde guztietan (Ipar Euskal Herrian eta Nafarroan izan ezik) eta Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan gertatzen da: emakumezkoek gizonetzkoek baino zertxobait gehiago hitz egiten dute euskaraz.**



**Emakumezkoek atxikimendu handiagoa erakusten dute hezkuntza eta arauetikiko, eta horretarako sozializatuak dira, sistema indartzeko; gizonezkoak, aldiz, arauen kontra joan ohi dira, eta apurtzailea izatea beraien identitatea sortzeko edo garatzeko elementu bat da.**

Azken kontu honekin, bi lotura egin daitezke: Kike Amonarrizek eta Iñaki Martínez de Lunak proposatzen duten garaian garaiko hizkuntza-exijentziara egokitzeko gaitasuna, batetik, eta bestetik, emakumeak eta gizonak sozializatzen diren moduarekin zerikusia duena: emakumezkoek arauarekiko (arau sozialarekiko) erakusten duten atxikimendua. Gazteen eremuan egindako ikerketek laguntzen digute lotura hori egiten.

### *B) Emakumetasun-/gizontasun-eredua eta euskara*

Jone Miren Hernandezek “Jolas-garaia. Gaztetxoak, hizkuntzak eta identitateen adierazpenak” ikerlanean adierazten duenez, emakumezkoek atxikimendu handiagoa erakusten dute hezkuntza eta arauetikiko, eta horretarako sozializatuak dira, sistema indartzeko; gizonezkoak, aldiz, arauen kontra joan ohi dira, eta apurtzailea izatea beraien identitatea sortzeko edo garatzeko elementu bat da. “Neskak, oro har, arduratsuagoak, ikasle onak eta hizkuntzarekiko kezkatuago daudela diote. Ia beti euskaraz aritzen dira. Nesken ikuspuntutik, mutilak alferragoak dira, ikasle okerragoak eta hizkuntzaz batere kezkatzen ez direnak. (...) Mutilek aitortzen dute beraiek ia ez dutela euskara erabiltzen, eta, aldiz, neskak ia beti euskaraz ari direla”.

Ildo beretik, Lorea Agirrek azpimarratzen du badagoela lotura emakumetasun-ereduaren eta jendarteak eskatzen dionaren artean, eta emakumetasunaren estereotipo horretan hizkuntza ere sartuko litzateke. Beste kontu bat da, Euskal Herriaren eremu zabalean, emakumetasun-eredu horri lotuta zein hizkuntza dagoen: “Gizartearen kontrola exijitzen zaie neskei, txiki-txikitatik. Izan daitezela zorrotzak, zuzenak, zintzoak, politikak, ahots-tonua altxatu gabe hitz egiten dutenak, makilatuak, ondo jantziak... eta mutilak astapotroak, esango nuke. Eta parametro horietan beraiek espainola identifikatzen baldin badute, bada, esan nahi du eredu, inposatzen edo eskatzen zaien eredu horretan, espainola dela nagusi, nahiz eta Euskal Herrian bizi eta gune soziolinguistikoki euskaldun batean bizi”.

Soziolinguistika Klusterrak ere “2013ko Bergarako nerabeen hizkuntza-erabilera formala eta informala” proiektuan baieztatzen du nerabeen sexuak hizkuntzaren erabilera baldintzatzen duela, eta nerabeen sexuaren eta menpeko aldagaien artean harreman esanguratsua dagoela. Gainera, interesgarritzat jotzen du ideia hori koadrilaren izaerarekin eta koadrilatik kanpoko harreman sozialekin lotzea. Ikerketa horretan zera aipatzen da: nesken koadrilak egonkorragoak direla eta, beraz, baita haien ohiturak (hizkuntza-ohiturak barne) ere; mutilek, berriz, harremanetarako aukera zabalagoa izan ohi dutela, eta askotan koadrila-hizkuntza

aldatzen dutela gaztelaniaren alde. Hor beste faktore bat proposatzen da, beraz, sozializatzen garen moduarekin lotuta dagoena: harremanak eraikitzeko modua eta horrek hizkuntzaren hautuan eta erabilieran duen pisua.

### *C) Aisialdia eta kirola: emakumeak euskaraz dibertitzen dira*

Aisialdi- eta kirol-ohiturek ere eragin zuzena dute euskararen erabilera-mailan, jardueren arabera aldatzen baita erabilera- zein ezagutzamaila. Orokorrean, badirudi kulturarekin lotutako ekimenetan euskararen presentzia handiagoa dela, edo administrazioaren menpe dauden jarduera arautuetan euskararen sustapenerako hizkuntza-politika jakin bat aplikatzen dela. Aldiz, eta datu zehatzik ez dugun arren, kirol-klubetan eta, bereziki, futbolean, euskara zaintzen ez delako susmoa da nagusi, elkarrizketetan zein artikuluetan.

Aisialdiaz gozatzeko orduan, badaude desberdintasunak genero-ikuspegitik eta horrek ere badu eragina nesken eta mutilen hizkuntza-jokaeretan. Lorea Agirrerren arabera, “Aisialdi-mota maskulinoak daude, aisialdi-mota femeninoak eta beste batzuk mistoak. Ingelesa uste dut mistoa dela, futbola eta, oro har, kirol estandarrak maskulinoak direla, eta gero beste batzuk femeninoak, dantza, bereziki. Dantzaren barruan izan daitezke break-dancea, hip-hopa edo euskal dantzak. Euskal dantzetan ikusten da mutilik ez dagoela. Hori aldaketa bat da, ze tradizionalki, oso mistoa izan da”.

Hori aipatzen da Bergarako nerabeen ikerketan nesken erabilera altua ulertzeko arrazoi gisa, hau da, neskek jarduera euskaldunenetan (kultura-jardueretan, musikan...) parte-hartze handiagoa izatea. Jone Miren Hernandez ere bat dator datu horrekin: “Neskak dauden tokietan, aisialdi arautu horretan, hizkuntza-irizpideak askoz arautuagoak daude eta garatuagoak, eta, aldiz, mutilak bereziki kirolean daude eta nik hor uste dut egoera kaskarragoa dela hizkuntzaren aldetik. Orduan, nesken kasuan, beti ari gara nolabait euskararen erabilera sendotzen”.

Begoña Muruagaren ustez, neska eta mutilen arteko kultura- eta kirol-ekintzekiko bereizketa hori belaunaldiz belaunaldi errepikatzearen —hau da, genero-rolak errepikatzearen— ardura, adin txikikoen eskolaz kanpoko ekintzen aukeraketan bereziki, gurasoena da: “Gurasoek zaletasuna aipatzen dute, baina batzuetan, umeek ez dute batere zaletasunik, eta gurasoek behartzen dituzte praktika batzuk egitera. Zergatik apuntatzen dituzte kirol-praktiketara mutilak? Dantzara ez dituzte apuntatzen mutilak, nahiz eta zaletasuna eduki”.

---

***Aisialdiaz  
gozatzeko  
orduan, badaude  
desberdintasunak  
genero-  
ikuspegitik eta  
horrek ere badu  
eragina nesken  
eta mutilen  
hizkuntza-  
jokaeretan.***

**Genero-identitatearen eraikuntza-prozesuan, hizkuntza bat edo bestea aukeratzekoan, berebiziko garrantzia dute balioek. Balio horiek identifikatzea eta horiek bere egin zein bere egiten ez dituzten kolektiboak identifikatzea eta zergatietan sakontzea eremu interesgarri bezain zabala da.**

### 3. Motibazioa

Motibazioaren eremua lausoagoa da eta, jakina denez, eremu zabala da. Ezagutzaren eta erabileraren ataletan ere jardun dugu hein batean motibazioaz, azken batean nahiak eragin zuzena duelako hizkuntza-jabekuntzan eta -jokaeretan. Atal honetan, hiru aldagai aztertu nahi izan ditugu, generoarekin gurutzatuta, analisi horrek euskararen elikadurarako hainbat argi-izpi eskain ditzakeelakoan.

#### *A) Balioak giltzarri dira genero-identitatearen eta hizkuntza-identitatearen definizioan*

Genero-identitatearen eraikuntza-prozesuan, hizkuntza bat edo bestea aukeratzekoan, berebiziko garrantzia dute balioek. Balio horiek identifikatzea eta horiek bere egiten dituzten zein bere egiten ez dituzten kolektiboak identifikatzea eta zergatietan sakontzea eremu interesgarri bezain zabala da.

Jone Miren Hernandezek "Jolas-garaia. Gaztetxoak, hizkuntzak eta identitatean adierazpenak" artikuluan dioen bezala, hizkuntzari atxikitako irudien garrantzia handia da, are gehiago, neska-mutilek adinean aurrera egin ahala: "Adinak aurrera egin ahala, bakoitzaren itxura zehaztu eta definitu beharrean aurkitzen dira gaztetxoak, eta definizio horretan talde edo norbanakoen adierazpenak txertatzen dituzte. Kanpoko itxuratze-lan horretan hizkuntza elementu adierazle bilakatzen da, eta horregatik dira hain garrantzitsuak hizkuntzari —euskarari, kasu honetan— atxikitako irudiak".

Balio horiek desberdinak dira hizkuntza bakoitzarentzat, Lorea Agirrerren hitzetan: "Hizkuntza bakoitzak bere adjektiboak ditu. Euskara esan eta gauza batzuekin lotzen dugu eta espainola esan eta beste gauza batzuekin". Eta horrek lotura zuzena du beste kontzeptu soziolinguistiko garrantzitsu batekin: hizkuntzaren prestigioa.

Euskal Herrian barrena hizkuntzaren adjektiboak, balioak eta prestigioa nabarmen alda daitezke, gainera, gune soziolinguistikoaren arabera, harreman-taldeen arabera... baita generoaren arabera ere. Horren gaineko azterketa zehatzik ez badago ere, erabilera-datuak kontuan hartuta, litekeena da emakumeek eta gizonezkoek euskara balio eta irudi desberdinekin lotzea eta horrek hizkuntza erabiltzeko nahimenean eragitea.

#### *B) Emakumeen lidergo-falta eremu publikoan*

Balioak eta irudiak eraikitzerakoan, erreferenteak garrantzitsuak dira, are gehiago adin-tarte batzuetan. Eta euskararen munduak bere erakunde nahiz norbanako erreferente propioak ditu. Horien artean daude eus-

kalgintzako erakundeak edota euskararen sustapenean lan egiten aritzen diren erakundeak. Horiek beren tokia dute plaza publikoan, eta, hor, eremu horretan, lidergo-mota jakin bat dago.

Asko dira euskararen sustapenean lanean diharduten emakumeak, eta asko dira, baita ere, oso feminizatutako elkarte edo eremuak. Emakume- eta gizon-kopuru bertsuaz edo emakume gehiagori buruz hitz egin dezakegun arren, kanon hegemonikoak gizonaek osatzen dituzte eta euskararen sustapenez, politikaz, normalizazioaz publikoki entzuten ditugun ahots gehienak gizonaek dira. Hizkuntzaren eremuan egiten den lanaren erreferentzia publiko nagusia gizonaekoa da, beraz. Euskararen erreferentziazko mundua ez dirudi gizonen hegemoniatik kanpo kokatzen denik. Jone Miren Hernandezen arabera, “Emakumeak oso itzalean egon gara beti eta ez dut ikusten aldaketa handirik horretan. Kulturgintzan edo euskalgintzan erreferenteak diren pertsonen artean ez dago emakumerik, eta emakumeen lana aitortu izan denean, beti oso modu kolektiboan, (...) oso difuminatuta joan da, izen-abizenik gabe”.

Pentsa liteke, berdintasunaren ikuspegitik, bidezkoa dela emakumeek euskararen sustapenean jokatzeko duten rola kontuan hartuta, emakumeek protagonismo eta lidergo handiagoa jokatzeko. Bidezkoa izateaz gain, askorentzat hizkuntza-hautuaren ikuspegitik bizigarri eta eragile ere izan daiteke.

Oso kontuan hartzekoa da eta berariaz lantzekoa, halaber, Lorea Agirrek aipatzen duen arriskua: “Emakumeak lan-munduan eta lan publikoan sartu direnean eta gehiengo bihurtu direnean eremu batzuetan, eremu horiek feminizatu egin dira eta feminizazioak askotan ekarri du desprestigioa (...). Emakumeak hizkuntzarekin doazen neurrian, biak dira minorizatuak, emakumea eta hizkuntza, eta, beraz, desprestigioan erortzeko arrisku handiak dituzte”.

Ezinbestean heldu behar diogu emakumea eta euskara gurutzatzen direnean botere-posizioaren ikuspegitik gertatzen denari, emakumea eta euskal hiztuna denari gertatzen zaion horri eta horrek duen eraginari. Norabide horretan, lidergoa aztergai izan zuen Soziolinguistika Klusterraren Eralan ikerketa-proiektuak horretarako aukerak eman ditzake: hizkuntzari lotutako eraldaketa-prozesuetan parte hartzen duten lidergo-motak genero-ikuspegiaren arabera aztertzea, eta beharrezkoa ikusiz gero, emaitzen arabera betiere, emakumezko lidergo eraldatzaileak sustatzeko jarduerak diseinatzea.

**Mari Luz Estebanekin lotzen dugu euskararen eremuan jabekuntza-kontzeptuan sakondu eta euskalgintzara zabaltzeko ahalegina. Eta euskarazko terminoa bera finkatu gabe dagoen arren, labur esanda, eremu jakin batean, desberdintasun-egoeraren gaineko kontzientzia hartu (jabetu), egoerari aurre egiteko gaitu (ahaldundu) eta boterea hartuz eragiteko (boteretzeko) prozesuaz ari gara.**

### C) Boteretze-prozesuak ez dira dimentsio bakarrekoak

Mari Luz Estebanekin lotzen dugu euskararen eremuan jabekuntza-kontzeptuan sakondu eta euskalgintzara zabaltzeko ahalegina. Eta euskarazko terminoa bera finkatu gabe dagoen arren, labur esanda, eremu jakin batean, desberdintasun-egoeraren gaineko kontzientzia hartu (jabetu), egoerari aurre egiteko gaitu (ahaldundu) eta boterea hartuz eragiteko (boteretzeko) prozesuaz ari gara. Prozesu horrek, gainera, baditu edo izan behar ditu inplikazio pertsonalak, kolektiboak zein sozio-politikoak. Jabekuntzaren kontzeptu soziopolitikoak kontzientziazioaren ohiko definizioak eta parte-hartze politiko formala aberastu eta gainditu nahi ditu: eskubideen urraketa eta testuinguru politiko eta kultural orokorra ondo ezagutzeaz gain, norbanako eta taldeko eraldaketetan zerikusia duten eta aldaketa bera oztopatzen duten prozesu psikologikoak, politikoak, kognitiboak eta ekonomikoak aintzat hartuz lan egiteko proposamena da.

Ameriketako Estatu Batuetan eta Latinoamerikan, afroamerikarren eta pobreen eskubideen aldeko borroketan erabiltzen hasi zen kontzeptu honek hedapen eta finkapen handia izan du emakumezkoen mugimenduen eskutik. Gaur egun, ezagutzen ditugu, adibidez, hainbat jabetze-eskola (horiek ere, izen desberdinez deituta: jabekuntza-eskola, ahalduntze-eskola...).

Berdintasunaren eremuan egin den bidea baliagarria izan daiteke euskararen alorrerako ere, eta, norabide horretan, Lorea Agirrek, adibidez, lotura zuzena egiten du feminismoak boteretze-prozesuen inguruan eta hizkuntza-ekologiak arnaguneen kontzeptuaren inguruan egiten duten planteamenduekin. Feminismoak jabetze-eskolak edo emakume-taldeak proposatzen dituen modu berean, hizkuntza-ekologiak arnaguneak proposatzen ditu, gutxitua denarentzako gune hegemoniko babestu gisa: "Hizkuntza-ekologiaren teoriatik, hizkuntzek behar dituzte arnagune eta gune hegemonikoak, hau da, hizkuntza nagusia euskara izango duten guneak. Formulazio hau feminismoak planteatzen duen berbera da (...), gu indartu gaitezen, guk behar dugu elkarrekin bildu eta horregatik emakume-taldeak sortuko ditugu, eta behin jabetzen garenean, guk geure burua defendatzen ikasten dugun heinean, orduan irekiko gara".

Euskal hiztuna, beti gutxienez elebiduna den neurrian, hizkuntza hautatzera behartuta dago. Hautaketa horren "karga", erraztasun- edo zailtasun-maila, aldi oro desberdina izango da, baina hautaketa horretan beti egongo da presente botere-harremana. Testuinguru jakin horretan, "boterearekin" lotutako hizkuntza zein den neurtuko dugu hizketan hasi aurretik. Batzuetan errazera joko dugu, beste batzuetan biderik

zailena hautatuko dugu, baina neurtu egingo dugu hautu bat edo bestea egiteak non kokatzen gaituen solaskidearekiko edo solaskideekiko.

Zalantzarik ez dago Euskal Herrian testuinguru zehatzak era askotarikoak direla, gune soziolinguistikoaren, erabilera-eremuaren edota harreman-taldearen arabera.

Hori horrela izanik, boteretzeko beharra euskal hiztun guztiena izango da, emakume zein gizonena. Baina botere-posizioa ahultzen duten elementuak pilatzeak botere-posizio are ahulagoan jar gaitzake. Pentsa dezagun ez dela gauza bera gizon euskaldun izatea edo emakume euskaldun izatea. Bigarrena bi aldiz dago desboteretua, emakume delako eta euskara hautatu duelako. Horri bestelako aldagaiak gehitzea ere posible da, genero-teorian interseksionalitatea deitzen zaionari erreferentzia eginez: adina, jatorria, maila sozioekonomikoa, ikasketa-maila, etab. Jone Miren Hernandezen aipu honek lagun dezake argumentua ulertzen: “Nik baldin badakit ni talde minorizatu bateko kide naizela..., momentu batean jokabidea izan daiteke irabazleen aldean jartzearena. Gaztelania bada boterea daukana, horren alde egin dezaket, nire estatusa igotzeko asmoz”.

## LANERAKO HIPOTESIEN ETA ESTRATEGIEN PROPOSAMENA

### I

Aurreko atalean jasotako egoera soziolinguistikoaren berrirakurketa oinarritzat hartuta, lanerako hipotesi batzuk proposatu nahi izan ditugu atal honetan. Hipotesiak baino ez dira, eta horiek baieztatzeko, baztertzeko edo berriz formulatzeko ikerketa eta egitasmo espezifikokoak beharko genituzke, zalantzarik gabe. Izan ere, orain arte ez da gaiaren inguruko azterketa sakonik egin, eta ezagutza-eremu honetan sakontzeko, beharrezkoa da ikerlerro berriak abian jartzea. Horretarako, garrantzitsua iruditzen zaigu honako hauek kontuan hartzea:

- Egiten diren informazio- eta datu-bilketetan sexuaren aldagaia modu sistematikoan sartzea.
- Datu berriak eta adierazle berriak jasotzea.
- Sexuaren araberako datuen analisi bereizia egitea.
- Egiten diren alor espezifikoetako ikerketak genero-ikuspegiarekin egitea.
- Generoaren ikuspegitik interesekoak izan daitezkeen ikerlanak egitea.
- Hainbat kontzepturen inguruan gogoeta egin eta ikuspegiak txertatzen joatea.

**Neskek eta  
mutilak  
desberdin  
sozializatzen  
dira,  
batzuentzako eta  
besteentzako  
eskakizunak  
desberdinak  
direlako. Neskei  
eskatzten diegu  
zintzoak,  
esaneakoak,  
ordenatuak,  
arduratsuak  
izatea eta  
sozializazio-  
egiturek eskatzten  
duten hizkuntza  
euskara bada,  
esanekoa izatea  
izango da  
euskara  
erabiltzea.  
Mutilek, berriz,  
ohikoagoa dute  
arauen kontra  
egitea,  
identitateak  
sortzeko.**

Atal honetan, hipotesietan sakontzeko edo horiei aurre egiteko estrategiak proposatzeko ahalegina ere egin dugu. Batzuetan ikerketalerro moduan, besteetan esku-hartze posible moduan. Guztiek ere hizkuntza-politikan genero-ikuspegia txertatzen hasteko abiapuntu izan nahi dute.

1. Euskalduntze-prozesuetan emakumeen presentzia handiagoa da baina horrek ez du inpakturik ezagutza-datueta.

Oro har, emakumeek nabarmenago hartzen dute parte euskalduntze-prozesuetan, aurreko atalean aipatu ditugun arrazoiak direla medio. Hori horrela izanik ere, euskararen ezagutza-datuei erreparatzen badiegu, ez dago alde nabarmenik emakumeen eta gizonen euskararen ezagutzari dagokionez.

Aztertu egin beharko genituzke zein diren emakumeek euskalduntze-prozesuetan egiten duten ahaleginak ezagutza-datueta inpakturik ez izatearen arrazoiak. Non dago gakoa? Ikastaroen planteamenduan? Emakumeek beraiek jarritako ezagutza-helburuetan? Ezagutzaren datua aitortua denez, autobalorazioan dago gakoa? (Erabilera aitortuaren eta behatuaren artean ere ikusten da tarteak).

2. Hizkuntzaren transmisioa amari lotua dago, oraindik ere, eta amaren hizkuntza-identitateak aitarenak baino pisu handiagoa du.

Transmisioa kontzeptu bezala neutroa da, baina transmisioa familiarekin eta zaintzarekin dago lotuta, eta zaintza, oro har, amen gain dago. Orokorrean, bikote mistoen kasuan, transmisioa hobeto bideratzen da euskalduna ama denean.

Berdintasun-ikuspegitik, ama-hizkuntzaz hitz egitea baino gomen-dagarriagoa iruditzen zaigu lehen hizkuntzaz hitz egitea. Edonola ere, "lehen hizkuntza" terminoak ez du errealitatea ezkutatzeko balio behar: transmisioaren eremuan gertatzen denak nabarmen erakusten baitu zaintzaren eremuan gauzak zertan diren emakumeen eta gizonen partaidetzari eta ardura-mailari dagokienez.

Garrantzitsua izango da errealitate hori aldatzen jarraitzeko estrategiak lantzen segitzea: bikoteak mistoak direnean, eta guraso euskalduna gizonetzkoa denean, adibidez, berdintasunaren eta euskararen mesederako izango da aitatasun arduratsuagoa lantzea. Aitarekiko (euskal) elebidunak diren umeak hezteko estrategia bereziak beharko ditugu, nahitaez zaintzan eta heziketan hartutako ardurarekin eta inplikazioarekin lotuta daudenak.

### 3. Transmisioa emakumeen gain dago, ez amen gain bakarrik.

Emakumeak soldatapeko lanetan dihardutenetik, familian eta zain-tzaren eremuan izan duen ohiko lekua beste pertsona edo erakunde batzuk betetzen joan dira, emakumeak edo feminizatutako erakundeak, horiek ere.

Feminizatutako arloek jasaten duten desprestigioaz mintzatu gara, baita emakumeek euskararen normalizazio-prozesuan egin duten ekarpenaren errekonozimendu faltaz ere.

Errealitatea zein den aztertu eta ikusarazteak balio du errekonozimendurako, eta lana edo ekarpena prestigiatzeko. Eta hor era askotako ekimenak egin daitezke.

Transmisioaren ardura euskaldun ororena (emakumeena zein gizonena) dela ikusarazteak ere eragin dezake transmisio hobean eta aitatasun parekideagoan.

### 4. Neska eta mutilen sozializazio-prozesu bereziak badu eraginik batzuek eta besteek erabiltzen duten hizkuntzan

Neskak eta mutilak desberdin sozializatzen dira, batzuentzako eta besteentzako eskakizunak desberdinak direlako. Neskei eskatzen diegu zintzoak, esanekoak, ordenatuak, arduratsuak izatea eta sozializazio-egiturek eskatzen duten hizkuntza euskara bada, esanekoa izatea izango da euskara erabiltzea. Mutilek, berriz, ohikoagoa dute arauen kontra egitea, identitatea sortzeko.

Beharrezkoa da ezagutzen jarraitzea euskara zer irudi eta balioekin lotzen den eta nesken eta mutilen genero-identitatearen garapenean nola eragiten duen.

Kontuan hartu beharko genuke, baita ere, nesken eta mutilen sozializazio-prozesuan eta identitatearen eraikuntzan generoa erabakigarria den bitartean, gazteei begira diseinatzeko eta garatzen ditugun esku-hartzeetan estrategia desberdinak aplikatu beharko ditugula: batzuentzat baliagarri izan daitekeenak kontrako emaitza eragin dezake besteengan eta alderantziz.

### 5. Nerabeen harremanen nolakotasunak hizkuntzaren erabilera baldintzatzen du.

Nesken harreman-sareak, oro har, txikiagoak, itxiagoak eta egonkorragoak direla ematen du. Horrek erraztu dezake hautatu den hizkuntza mantentzea eta hizkuntza-fideltasuna handiagoa izatea. Mutilen artean, berriz, harremanak gehiago dira eta lantaldeak irekiagoak.



**Lan-munduan,  
emakumeak  
gizonezkoak  
baino  
presenteago  
daude zerbitzuen  
eremuan edota  
administrazioan.**

**Horietan  
euskararen  
eskakizuna  
handiagoa da,  
bai ezagutzaren,  
bai erabileraren  
ikuspegitik**

Horrek, hizkuntzaren erabileran ere, aldakortasuna handiagoa izatea eragin dezake.

Mutilen eta nesken harreman-dinamikak desberdinak badira, gazteen arteko harremana oinarri duten esku-hartzeetan kontuan hartu beharreko alderdia izango da, eta harreman-mota desberdinetan oinarritutako dituzten esku-hartzeak planteatu.

6. Gelaz kanpoko jardueretan ere hizkuntza eta generoa lotuta doaz.

Neskek, oro har, aisialdi arautuan hartzen dute parte eta kulturarekin lotutako jardueretan, eta horietan hizkuntza-irizpideak garatuago eta erabilera arautuago egoten da. Mutilek, aldiz, kirolak egiten dituzte bereziki, eta hor, azken urteetan euskararen erabilera sustatzeko hainbat ekimen egin diren arren, egoera kaskarra da hizkuntza-irizpideei, -ezagutzari eta -erabilerari dagokienez.

Eragiteko garaian, bi jomuga eduki ditzakegu: batetik, euskaldunen izan daitezkeen aisialdi-jardueren feminizazioari aurre eginez, mutilak erakartzeko estrategia espezifikoak lantzea, euskararen eta berdintasunaren mesederako; bestetik, kirola bezalako eremuak euskalduntzeko estrategiak indartzea.

7. Lan-munduan, emakumeek bete ohi dituzten lanbideetan, euskararen eskaera eta erabilera altuagoa da.

Lan-munduan, emakumeak gizonezkoak baino presenteago daude zerbitzuen eremuan edota administrazioan. Horietan euskararen eskakizuna handiagoa da, bai ezagutzaren, bai erabileraren ikuspegitik: irakaskuntza, osasungintza, merkataritza, etab. Ondorioz, emakumeak euskara ikastera eta erabiltzera behartuago daude gizonezkoak baino.

Lehen ere aipatu dugu emakumeek euskarari egindako ekarpenean sumatzen den aitortza falta eta ekarpena aztertzeak berarekin ekar dezakeen errekonozimendua. Eremu hau izan liteke horretarako aukera: beren ohiko hizkuntza-erabilera aldatu eta lanean euskara erabiltzearen alde egin duten emakumezko profesionalen ereduak lagungarri izateaz gainera (Aldahitz eta Eralan bezalako proiektuek lagun dezakete horretan), profesional onak izateko egiten duten ahaleginaren aitortzarako ere baliagarriak lirateke euskararen sustapenaren ikuspegitik, baita berdintasunaren ikuspegitik ere.

8. Emakume euskalduna izateak boteretze handiagoa eskatzen du euskararen periferian.

Prestigio handien duen hizkuntzaren alde egitea, edo euskaraz jar-

dutearen “karga” handiagoa sentitzea eta emakumea izatea lotuago joan daitezke, baldin eta hor jabetze-, ahalduntze- eta boteretze-prozesurik ez badago.

Euskal hiztunen jabetze-, ahalduntze- eta boteretze-prozesuak sustatzeko ekimenak behar ditugu, genero-ikuspegia kontuan hartuko dutenak eta hizkuntzaren auzia zein generoarena botere-harremanen dinamikan ongi kokatzen lagunduko digutenak. Botere-harremanez ari garela, heldu beharko diegu, baita ere, botere-dinamika horretan eragiten duten bestelako alderdi batzuei ere (intersekzionalitatearen ikuspegia aplikatuz). Berdintasunaren eremuan gure inguruan martxan diren jabetze-eskolek zer ikusia eta ikasia eman diezagukete.

#### 9. Euskalgintza ez da salbuespena.

Euskalgintzan lanean diharduten emakumeak asko dira, eta asko dira, baita ere, oso feminizatutako elkarte edo eremuak. Baina erreferentzialtasunaren ikuspegitik hegemonia eta lidergo publikoa gizonekoena da.

Euskararen eremuan lan egiten duten emakumeak ikusaraztea, justiziazkoa izateaz gainera, lidergo-mota berriak eraikitzeak aukera izan daiteke. Horretarako, bi bide egin behar dira: batetik, hizkuntzari lotutako eraldaketa-prozesuetan parte hartzen duten lidergo-motak genero-ikuspegiaren arabera aztertzea oso baliagarria izan daiteke; bestetik, beharrezkoa da euskalgintzan diharduten emakumezkoen artean lidergo eraldatzaileak sustatzeko jarduerak diseinatzea.

#### 10. Feminismoa eta euskalgintzaren artean sinergiak eraiki daitezke.

Aurreko atalean gai honi erreferentziarik egin ez badiogu ere, ildo bereko hainbat aipamen edo proposamen jaso ditugu egitasmo honen garapenean zehar, feminismoaren eta euskalgintzaren artean sinergiak eraikitzearen alde eta elkarlanerako aukerak aztertzearen alde.

Bidea elkarrekin egitekotan, elkarren berri izan behar dute bi munduek: ongi ezagutu behar dituzte elkarren helburuak, interesak, oztopoak, mugak... Eta elkarren estrategiak konpartituz, bat non egin dezaketan aztertu eta landu beharko dute. ●

---

***Hainbat aipamen edo proposamen jaso ditugu egitasmo honen garapenean zehar, feminismoaren eta euskalgintzaren artean sinergiak eraikitzearen alde eta elkarlanerako aukerak aztertzearen alde.***

## ERANSKINA

### Metodologia

Metodologiaren ikuspegitik, honako eskema honen arabera egin dugulan:

#### INFORMAZIO-BILKETA ETA USTIAKETA

- Informazio dokumentala eta bibliografikoa jaso eta ustiatu dugu, gaiarekin lotuta interesekoa iruditu zaiguna.
- Gasteizko, Arabako, EAeko eta Euskal Herriko egoera soziolinguistikoaren inguruko datuak eta txostenak aztertu dugu.
- Bakarkako elkarrizketak egin dizkiegu iritzi kualifikatua duten 3 laguni: Jone Miren Hernandez Garcia, Lorea Agirre Dorronsoro eta Begoña Muruaga Lacari.
- Informazio- eta datu-bilketan oinarrituta, errealitate soziolinguistikoa berrirakurri dugu.
- Lanerako hipotesiak landu ditugu.
- Hipotesi horietan oinarrituta, lanerako estrategia batzuk proposatu ditugu.

#### KONTRASTE-BILERAK, PROZESUAN ZEHAR

- Gasteizko Udaleko Euskara Zerbitzuko eta Berdintasun Zerbitzuko teknikariek kontraste-bilerak egin ditugu.

### Elkarrizketa egindako adituak

#### ELKARRIZKETA PERTSONALAK

Ikerketa-egitasmoan zehar hiru elkarrizketa egin ditugu. Hauek izan dira aditu gisa elkarrizketatuak:

- Jone Miren Hernandez Garcia (Lasarte-Oria, 1970)  
Kazetaritzan eta Soziologian lizentziaduna, EHU doktorea eta gizarte-antropologiako irakaslea. Hainbat ikerketa egin ditu, doktore-tesia euskararen komunitateari buruz egin zuen, eta bertsolaritza ere aztertu du genero-ikuspuntutik.
- Lorea Agirre Dorronsoro (Beasain, Gipuzkoa, 1968)  
Kazetaria eta antropologoa da, Informazio Zientzietan lizentziaduna. Euskaldunon Egunkarian eta Berrian kazetari ibilia da. Euskararen eta euskal kulturaren inguruko ikerketetan parte hartu du Mondragon Unibertsitatean, Huheziko Sorguneak ikerguneko ikertzailea baita. Huzein bertan, irakasle ere izan da.
- Begoña Muruaga Laca (Bermeo, Bizkaia, 1953)  
Euskal Filologian lizentziaduna. Itzultzailea eta normalizazio-teknikaria izan da. Zenbait aldizkaritako eta egunkaritako kolaboratzailea. Gaur egun, kultura teknikaria da Arabako Foru Aldundiko Ignacio Aldekoa Kultur Etxean.

## **OHARRA**

1. Eskerrak eman nahi dizkiogu Gasteizko Udaleko Euskara eta Berdintasun zerbitzuei. Ariketa hau egiteko aitzakia beraiek egindako eskaera izan baita. Eskerrak, baita ere, ariketa egiten lagundu diguten informatzaile kualifikatuei, zehazki: Jone Miren Hernandez, Lorea Agirre eta Begoña Muruagari.

## **ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK**

- Alvarez, Amaia (2004): *Euskara eta diskriminazio sexuala*. Jakin aldizkaria, 142. zk.
- Amonarriz, Kike (1995): *Euskararen erabilpenaren feminizazioa*. BAT aldizkaria, 15. zk.
- Arabako Foru Aldundia. *Araban Emakume eta Gizonen Berdintasunerako III. Foru Plana*.
- Emakunde (1996). *Ekintza Positiboak garatzeko gida*.
- Emakunde (2012). *Generoaren araberako eraginaren txostenak egiteko gidariburua*.
- Esteban, Mari Luz (2012): *Feminismoa, euskaragintzarako gogoeta-tresna? Udaltop*
- Euskararen Aholku Batzordea. *Euskara Sustatzeko Ekintza Plana*.
- Gasteizko Udala. *Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia*. Gasteiz. 2013-2017.
- Gasteizko Udala. *Gasteizko III. Berdintasun Plana*.
- Goikoetxea, Nekane (2009): *ERALAN ikerketa-proiektua: lidergoa aztergai*. BAT aldizkaria, 73. zk.
- Hernandez, Jone Miren (2002): *Kale Neurketa: sexuaren araberako erabileraren emaitzak eta horien inguruan sortutako galderak*. BAT aldizkaria, 43. zk.
- Hernandez, Jone Miren (2004): *Euskara dela eta... neskek, zer diote?*. BAT aldizkaria, 53. zk.
- Hernandez, Jone Miren (2005): *Jolas-garaia. Gaztetxoak, hizkuntzak eta identitateen adierazpenak*. Soziologiazko Euskal Koadernoak, 16. zk.
- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza (2012): *V. Inkesta Soziolinguistikoa*. Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroa eta Iparraldea.
- Martinez de Luna, Iñaki (2007): *Euskararen kale-erabilera Araban: 1989-2006*. BAT aldizkaria, 64. zk.
- Soziolinguistika Klusterra (2013): *Bergarako nerabeen hizkuntza-erabilera formala eta informala*.
- Soziolinguistika Klusterra (2012): *Gazteak eta euskara Gasteizen*.
- Zinkunegi, José Francisco (1995): *Euskararen transmisioa Euskal Autonomi Elkartean*. BAT aldizkaria, 15. zk.